



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko urriak 13

Vitoria-Gasteiz, 13 de octubre de 2021

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

ETXEBIZITZA LEHENTASUNEZ EROSTEKO LEGE-PROPOSAMENAREN AURKA DAGOELA ADIERAZI DU EUSKO JAURLARITZAK

- **Jaurlearitzak adierazi du EH Bilduren proposamenak ez duela ezer berririk ekartzen legezko erregulazioari dagokionez**

Gobernu Kontseiluak adierazi du administrazio publikoek etxebizitza lehentasunez erosteko eta inbertsio-funtsen jarduera mugatzeko lege-proposamena kontuan hartzearen aurkako irizpidea duela. EH Bildu legebiltzar taldeak egindako ekimenak administrazio publikoen lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea arautzen du, alokairu sozialeko etxebizitzaren kopurua handitzeko bide gisa.

Gobernu Kontseiluak Gasteizen asteroko bileran aztertu du proposamena, eta aurkako irizpidea azaldu du, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean eta Kode Zibilean berariaz araututa daudela argudiatuz. Bere ustez, gainera, lege-proposamenean adierazten da Etxebizitzaren Legea bateratu eta argitu beharko litzatekeela, baina proposamenak ez du ezer berririk ekartzen lege-erregulazioari dagokionez. Izan ere, Eusko Jaurlearitzak erosteko lehentasunezko eskubidea du eta horren arabera jokatzeko du. Era berean, argudiatu du proposamenak nahasmena sortzen duela eta ez duela planteatzen bateratzean beharrezkoak diren aginduak indargabetzea.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

ARANTXA TAPIA: ENERGIA-KOSTUEN ANALISI ETA BALORAZIOA

la hamar urte dira politika industrialari lotutako politika energetikoa eskatzen, eta egun hauetan agerian geratu da Euskadin energiaren prezioak industrian duen eragina, ekonomiaren motorra eta gure ongizate-estatuaren zutabea.

Nolanahi ere, Jaurlaritza honek energia-kostuengatik duen kezka ez dagokio soilik industria-eremuari, oso ondo baitakigu gizartearen zati bat egoera oso konplikatuan egon daitekeela. Erakunde guztiak elkarlanean, Gizarte politiken alorretik atenditzen ditugu behar horiek.

Industria energia eskuratzeko baldintzen menpe dago, eta prezioen gorakadak susperraldia eta enplegua arriskuan jartzen ditu. Eztabaida honi aurre egiteko moduaren ondorioa izango da gure lantegiek nola jarraituko duten aurrera.

Energiaren kostua handitzeak aurrez aurre jartzen gaitu gure kontraesanekin. Eta gure errealitate industrialak defendatuko duen estrategia energetiko bat proposatu nahi dugu.

Eusko Jaurlaritzaren asmoa ez da begirale soilak izatea, eta ez gara ezkutatuiko energiaren prezioaren eraketa beste batzuei dagokiela argudiatzen. Guri dagokigu, eta asko gainera, industria elektro-intentsiboak gure herrietan daudelako, eta guri dagokigulako, gure lanpostuak direlako.

Negua dator eta merkatuaren baldintzek okerrera egin dezakete. Eskaera igotzen bada eta eskaintza bere horretan geratu edo beheranzko joera hartzen badu, ezinbestean prezioen igoera pairatuko dugu.

Egoerari buruzko azterketa bat egiten ari gara, eta, bertan, egiturazko gaiak eta premia osagai koiunturalak hartu ditugu kontuan, minuturik galdu gabe neurriak hartu behar bait ditugu, eta erakunde-maila guztietan aktibatu eta lagundu behar dugu, eskariaren parte diren enpresen eta eskaintzaren parte direnen eskutik. Aurreiritzirik eta demonizaziorik gabe, ikuspegi konstruktibo eta errealistatik.

Neurri teknikoaren txosten bat amaitzen ari gara, eta Espainiako Gobernuari eta Europako Batzordeari helaraziko diegu. Euskadik ere konpromisoak hartzen ditu txosten horretan.

Laburbilduz, eskaria murrizteko, eskaintza handitzeko eta merkatuaren aldakortasuna konpentsatzeko jarduerak biltzen dituen azterketa da. Elkarrekin jarduteko planteamendu bat, eta ESTABILITATEA bilatzen duena.

Txosten honek epe laburreko eta ertaineko/luzeko neurriak biltzen ditu hiru jarduera-mailetan: Europan, Espainian eta Euskadin.

Espainiako Gobernuari planteatuko zaio, energiaren tratamenduan industria-politikaren aldeko apustua berrestea, eta horretarako, adibidez, kargu elektriko guztiek aldi baterako gabezia bat izatea, eta kargu horiek Estatuak finantziatzea. Faktura elektrikoaren, egungo fakturan jasotzen diren hainbat alderdi ezabatu eta/edo aldi baterako atzeratzea izango litzateke, hala nola berriztagarrien primak, penintsulatik kanpoko kostu estrak, tarifa-defizitaren urterokoa, etab. zuzenean Estatuko Aurrekontu Orokorrek bereganatuko dituztenak.

Are gehiago eragin liteke, epe jakin baterako merkatu bat sustatuz, eguneroko prezioaren eta aldakortasunaren menpe egongo ez dena, industriak prezioei buruzko erreferentziak izan ditzan, plangintza hoberekin jarduteko aukera izan dezaten; bai eta berriztagarrien, kogenerazioaren eta hondakinen instalazioei ordaintzeko parametroei lotutako neurriak ere; Industriako CO₂-aren zeharkako kostuen konpentsazioa handitzea; egungo tarifa-egutegi elektrikoaren berrikustea, eta gas naturalaren eta CO₂ gasaren ordainketari lotutako alderdiak aztertzea ere. Horrela, ez dira zehatuko eguneroko merkatuari buruzkoak ez diren bi aldeko eperako kontratuak.

Gasaren prezioa oso baldintzatzaile garrantzitsua izaten ari da gaur egun jasaten ari garen kostuak ezartzerakoan, eta, alde horretatik, Espainiako Gobernuarekin landuko diren alderdi teknikoenez gain, premiazko zat jotzen dugu **gas naturalaren horniduraren segurtasunerako kontingentzia bereziko plan** bat egitea datozen hilabeteetarako. Are gehiago Magrebeko gasbidearen itxierarekin, urriaren amaierarako iragarri baitzen.

Europako Batzordeari begira, mugako karbono-doikuntzaren gaiari heldu nahi diogu, gure industriak, CO₂-ren emisioei dagokienez hain zorrotzak ez diren beste herrialde batzuekin alderatuta, lehiakortasuna galdu ez dezan; European dagoen gas natural baliabide propioen erabilera posiblea. Energia-trantsizioarekin eta berriztagarriak mix energetikoan sartzearekin batera, Europarako energia-horniduraren eta -horniduraren segurtasuna, zeina askotan tentsio geopolitikoek baldintzatzen baitute, hala nola Errusiak edo Tarifa-Magreb gasbideak, Aljeriaren eta Marokoren arteko tentsioen ondorioz.

Euskadik eraginkortasun energetikoa eta berriztagarriak areagotuko ditu Hala ere, uste dugu Euskaditik ere ekarpenak egin ditzakegula eta sistema egonkorragoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa diseinatzen lagun dezakegula. Horregatik, inoiz baino gehiago, Europako gomendio eta jarraibideekin bat datorren epe ertain-luzerako energia-estrategiaren aldeko konpromisoa areagotu dugu.

Batez ere, bi lan-ildo daude: eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien sustapena. Ez dira apustu berriak, nahiz eta lehenbailehen areagotu eta bizkortu behar ditugun.

Eskariaren gainean jardungo dugu, eraginkortasun energetikoa hobetuz. Eta eskaintzan jardungo dugu, berriztagarria sortzea eta biltegitratzea sustatuz.

Horretarako, honako gai hauek jorratuko ditugu:

- Industriako energia-eraginkortasuneko neurriak.

- Energia-eraginkortasuna etxebizitza-parkean eta eraikinetan, oro har.
- Mota guztietako energia berriztagarrien eta dimentsio desberdineko proiektuen bidezko sorkuntza areagotzea. Izapideak eta finantzaketa bizkortzea.
- Gas berriztagarriak sortzeko proiektuak lantzea, hala nola biogasa edo hidrogenoa.
- Autokontsumorako proiektuak sustatzea. Esperientzia berritzaileak, hala nola EKIOLA proiektua.
- Baterien eta/edo hidrogenoaren bidez energia biltegitzako neurriak ikertzea eta ezartzea.
- Europatik datozen gas eta elektrizitate konexioen espediente guztien izapidetzea erraztea

Premiazkoa da aldaketak egitea, ez edonola, errealismotik abiatuta. Pairatzen ari garen errealitate gordinak interpelatu egiten gaitu, eta geure inkoherentziak erakusten dizkigu.

Espainiako Gobernuari eta Europako Batzordeari helaraztea

Egoera horrek kezkatzen eta arduratzen gaitu. Horregatik, azterketa hau eta behin betiko txostena partekatzen ari gara, lehenik eta behin, industria-sektore ahulenekin, ostiral honetan bertan egingo dugun bileran.

Datorren astelehenean, Maros Sefcovic Europako Batzordeko presidenteordeari eta Teresa Ribera Trantsizio Ekologikoko hirugarren presidenteorde eta ministroari helaraziko diegu gogoeta hori, Euskadin dagoela aprobetxatuz.

Eta kezka eta gogoeta hori enpresa elektriko nagusiei ere helaraziko diegu, haiekin elkarrizketa zintzo eta elkarlanerako bide bat beharrezkoa dela uste baitugu.

Ondorioa

Euskadik energia gehiago ekoitzi behar du.

Euskadik ekoizten ez duen energia eskuratu behar du merkatuko baldintza lehiakorretan.

Ekoizten dugun energiaren % 8,6an baino ez dugu sortzen.

Ez badugu ezer egiten, datozen belaunaldiek jasango dituzte ondorioak, industria gutxiagorekin, enplegu gutxiagorekin, eta ahuldu egingo den ongizatearekin.

Beharrezkoa da, Lehendakariak ikasturte politikoaren hasieran adierazi zuen bezala, Herri-ltun bat adostea, politika-, gizarte- eta enpresa-esparruek parte hartuko duena, eta, azken batean, gure *Basque Green Deal* garapen-eredu inklusibo eta jasangarri batekin bultzatzeko aukera emango diguna.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK EKONOMIA ZIRKULAR ETA BIOEKONOMIAREN LEHENENGO PLANA ONARTU DU, LEHENGAIEN KONTSUMOAREN ERAGINKORTASUNA SUSTATZEKO, HONDAKINAK MURRIZTEKO ETA EKOIZPEN GARBIA OPTIMIZATZEKO

- **Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2021-2024 Planak 45 milioi euroko aurrekontua aurreikusten du, 32 miloi baliabide propioak dira eta 13 miloi Mext funtsak.**
- **Plan honek produktibitate materiala % 30 handitzea eta hondakinen sorrera-tasa % 10 murriztea aurreikusten du, eta Euskadi ekonomia zirkularraren liderren artean kokatzen du European**
- **Urriaren 21ean irekiko da toki-erakundeentzako eta enpresentzako laguntza-programa berri baten epea. NEXT funtsetatik datozen 13 milioi euroko zuzkidura izango du programa horrek, eta proiektu zirkular berriak eta hondakinak kudeatzeko proiektu berriak finantzatuko dira.**
- **Bioekonomia barne hartzen du plan honek, baliabide biologiko berriztagarriaren erabilera bultzatuz balio handiko produktu berriak sortzeko**
- **Planak 11 jarduera-ildo eta 53 ekintza konkretu biltzen ditu; horien bidez, Euskadiko trantsizioa bultzatu nahi du lehengaien kontsumo aldetik efizienteagoa den ekonomiarantz**

Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio gaur Euskadiko Ekonomia Zirkular eta Bioekonomiaren 2024rako Plan Estrategikoaren onarpenari. Plan horrek bioekonomiaren bultzada jasotzen du aurreneko aldiz, teknologia berritzaileak bitartekotzat hartuta, eta ekoizpen zein kontsumo eredu berri baten alde egiten du, Euskadi ekonomia efizienteagora eramateko xedez.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak prestatuta, gaur onartutako Planak erantzuna eman die zenbait erronkari, hala nola: zirkularragoak diren negozio-eredu berrien sorrera bultzatzea; material (aurreratuak eta berriztagarriak), prozesu eta produktuetan berriztatzea; produktuen balio-bizitza luzatzea; lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztea; kontsumo-eredu zirkularrago bat sustatzea; elikagaien xahuketa murriztea; plastikoen erabilera efizienteagoa bultzatzea; hondakinen berrerabilpen, birziklapen eta berreskurapena areagotzea; eta lehengai sekundarioen erabilera handitzea.

Basque Green Deal, Euskadiko Itun Berdeari, garapen-eredu inklusibo eta iraunkorrari bultzada emateko printzipioetako batzuk dira.

Erronka horiei aurre egiteak -enpresak, administrazioak eta herritarrak inplikaturaz-ahalbidetuko du Euskadi erreferente gisa kokatzea ekonomia zirkularrerako trantsizioan eta bioekonomia zirkularran. Hain zuzen ere, bioekonomia da plan honekin bereziki bultzatu nahi den alderdi bat. Bioekonomian aritzen diren sektore ekonomikoek lur eta itsasoko baliabide biologiko berriztagarriak –hala nola laboreak, basoak, animaliak eta mikroorganismoak- erabiltzen dituzte elikagaiak, materialak eta energia ekoizteko, baliabide naturalen kudeaketa irtenbide teknologiko berriekin uztartuz, gaur egun erregai fosilez ekoizten duguna ordeztuko duen produktu-belaunaldi berri bat sortzeko. Aukera bat da balio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa ekologia, ekonomia eta berrikuntza uztartzearen bidez sortzeko.

Europako Batzordearen ekonomia zirkularrerako Ekintza Planarekin bat etorritik, Euskadiko Ekonomia Zirkular eta Bioekonomiaren 2024rako Planak lau ardatz estrategiko ezartzen ditu: ekoizpena; kontsumoa; hondakinen eta lehengai sekundarioen kudeaketa; eta lehiakortasuna eta berrikuntza

Hamaika jarduera-ildo jasotzen dira (Negozio-zirkularren eredu berriak eta balio erantsi handikoak; Berrikuntza eta teknologia berriak ekonomia zirkularran eta bioekonomian; Material jasangarri berriak; Produktu eta eraikinen ekodiseinua; Fabrikazio efizientea eta baliabideen ustiapen jasangarria; Bioekonomia zirkularraren aukerak sendotzea; Kontsumo zirkularra; Merkatuko eskaria eta baldintzak sortzea; Elikagaien xahuketa; Plastikoen kontsumoa; Hondakinen kudeaketa jasangarria; eta Lehengai sekundarioak), 53 ekintza konkretutan islatuta. Jarduera-ildo eta ekintza hauen helburua da Euskadiko trantsizioa bultzatzea baliabideen erabileran efizienteagoa den ekonomiarantz, ekoizpen-eta kontsumo-eredu berri batera zuzendutako berrikuntzaren bitartez.

53 ekintza

Ekintza horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: **Basque Circular Hub**-en sorrera (Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Zerbitzu Aurreratuen Zentroa); inbertsio publiko eta pribatua indartzea ekonomia zirkular eta bioekonomiaren alorreko berrikuntza-proiektuetan; material berrien garapenerako ikerketa-proiektuak abiatzea; edo **Basque Ecodesign Center** erakundea bultzatzea lehiakortasuna hobetzeko, balio-katea trakzionatzeko eta beraren jarduereremua sektore berrietara (eraikuntza, finantzarioa...) hedatzeko proiektuak garatzeko.

Aurreikusita dauden beste ekintza batzuk honako hauek dira: ekoproduktibitatea ETEetan sostengatzera zuzendutako **“ETE zirkularra”** programa garatzea; aliantza iraunkorrak sortzea bioekonomia zirkularraren alorrean traktore diren europar eragile teknologikoekin; ekonomia zirkular eta bioekonomiaren irizpide berriak sartzea **Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2030erako Programan**; herritarrak elikagaien kontsumo-eredu arduratsuagoaz kontzientziazatzea, elikagaien xahuketaren arazoa azpimarratuz.

Halaber, Planak honako ekimen hauek ere aurreikusten ditu: borondatezko akordioak egitea funtseko eragileekin, kontsumitzen diren plastikozko ontzien %

75 birziklagarria izatea lortzeko eta erabilera bakarreko plastikozko poltsa ez-birziklagarriak ezabatu ahal izateko; hondakinak tratatzeko teknologia berri eta efizienteagoak txertatzea eta garatzea, eta **hondakinak kudeatzeko** sektore aurreratu bat Euskadin bultzatzea; eta material birziklatu eta berriztagarrien gidak prestatzea eta banatzea, eraikuntza-proiektuetan txertatzeko.

45 miloi: Aurrekontua eta laguntzak

2024rako Euskadiko Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plana inplementatzeko aurreikusitako aurrekontua 31,9 milioi eurokoa da, baliabide propioekin, eta horiei Next Generation funts europarretatik datozen 13 milioi euro gehitu behar zaizkie. Funts horiek Europako Erkidegoak udal-hondakinen eta ontzien kudeaketaren arloan dituen helburu berriak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren inbertsioak bizkortzeko erabiliko dira.

Plan hau 2019an hasitako prozesu parte-hartzaile batez landu da, eta beraren bitartez funtsezko eragile askoren informazioa jaso ahal izan da: Euskadiko enpresak, klusterrak, erakunde publikoak, unibertsitateak eta zentro teknologikoak.

Esparru horren baitan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 13 milioi euroko laguntza-lerro bat diseinatu du, EBk udal hondakinen, ontzien eta ontzien hondakinen kudeaketaren alorrean ezarri dituen helburu berrien betearazpena bermatzeko beharrezkoak diren inbertsioak azkartzeko xedez.

Diru-laguntza horien deialdia datozen egunetan egingo da, eta haien helburua da ekonomia zirkularra Euskadin sustatzea, zehazki honako ekimen hauen bidez: gaikako bilketa berriak ezartzea, batez ere biohondakinena, baita oraingoak hobetzera ere; gaika bildutako biohondakinak tratatzeko instalazio espezifikoak eraikitzea; gaika bildutako beste hondakin-fluxu batzuk berrerabilpen eta birziklapenerako prestatzeko instalazio berriak eraikitzea; eta honako asmo hauetarako inbertsioak: hondakinak biltzeko (garbiguneak, adibidez), bereizteko eta sailkatzeko (ontziak, papera, eta abar.) instalazioak; eta oraingo tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioen eta berreskuratutako erregai solidoak (BES) prestatzeko instalazioen hobekuntza.

Laguntzen eskatzaileak honako hauek izan daitezke: udalerrriak edo beste toki-erakunde batzuk (foru aldundiak, mankomunitateak, eskualdeak, eta abar.), edota toki-erakunde horiek eta hondakinak biltzeko edo tratatzeko zerbitzuak betetzeko eskumena berenganatuta duten sozietate publikoek osatutako partzuergoak; erakunde juridiko publiko eta pribatuak (enpresak, elkarteak, gremioak, fundazioak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, ikastetxeak eta unibertsitateak, eta abar.), merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak edo industrietan sortutako etxeko hondakinak sortzen dituztenak eta gaikako bilketarako proiektu bat aurkezten dutenak; eta hondakinen kudeatzaileak.

Laguntza horien funtsak Euskadi Next - Euskadiren berreskurapenerako, eraldaketarako eta erresilientziarako inbertsio-programatik datoz.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

KANPO-MERKATUETAN ARDOGINTZAKO PRODUKTUAK EZAGUTARAZTEKO ETA SUSTATZEKO EKINTZETARAKO LAGUNTZAK DEITU DITUZTE

- **Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak, ARDOA Basque Wine Office-ren koordinazioaren eta finantzaketaren bitartez, edarien sektoreari laguntzeko abiarazi dituen ekimenetako bat dira**
- **Zenbatetsi da 23 milioi euroko balioko jarduketak aurkeztuko direla, eta Arabako Errioxako upategiak eta Txakolin upategiak izango dira onuradunak**

Eusko Jaurlaritzak onetsi egin du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Agindua, 2021eko maiatzaren 1etik 2022ko apirilaren 30era arte ardogintzako produktuak hirugarren herrialdeetan ezagutarazteko eta sustatzeko garatuko diren ekintza eta programetarako laguntzak deitzen dituen. Zenbatetsi da 23 milioi euroko jarduketak aurkeztuko direla, eta 10 milioi baino gehiago laguntza horietatik etorriko dira.

Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak edarien sektoreari laguntzeko abiarazi dituen ekimenetako bat dira, eta horien artean daude, halaber, inbertsioa babestea, sektorearen lehiakortasuna hobetzea, kokapen- eta merkaturatze-ekintzak sendotzea, eta Euskadiko upategiak eta ardoak sustatzeko ekintza berriak abiaraztea, ARDOA Basque Wine Office-k koordinatuta eta finantzatuta.

ARDOAREN OCM-REN SUSTAPEN PROGRAMA

Programa honen helburua da egungo egoera bideratzea euskal mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen lehiakortasuna areagotzeko eta beraien ardoek kanpoan kokapen sendoagoa eduki dezaten. 2020-2021 aldirako zuzeneko laguntzak dira, gaur egun gauzatzen ari dena. Aparteko finantzaketa izan du eta aurreikusitakoa baino dirulaguntza handiagoa jaso dute, 8,3 milioi eurotik 12,3 milioira igo baita.

Laguntza horiek Arabako Errioxako upategietarako eta hiru lurralde historikoetako Txakolin upategietarako dira, zuzeneko kontsumorako kalitateko produktua hirugarren herrialdeetan ezagutarazteko eta sustatzeko programak garatzeko. Produktu horiek esportatzeko aukerak eduki behar dituzte edo hirugarren herrialdeetan merkaturatzeko bide berriak, eta kategoria hauetako batekoak izan behar dira:

- Jatorri-deitura babestuko ardoak
- Adierazpen geografiko babestuko ardoak
- Ardo-mahats aldaeraren edo aldaeren izena adierazita duen ardoak

Onuradun izan daitezke ardogintzako enpresak zein haien elkarteak, kooperatibak, aldi baterako taldeak edo produktua sustatzen diharduten erakundeak.

Diruz lagundu daitezkeen ekintzak eta jarduerak

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen ekintzak:

- Harreman publikoak eta sustapen- eta publizitate-neurriak, bereziki erkidegoko produktuek kalitateari, elikagaien segurtasunari eta ingurumenari dagokienez dituzten abantailak nabarmentzeko direnak.
- Nazioartean garrantzitsuak diren agerraldi, azoka eta erakusketetan parte hartzea.
- Informazio kanpainak, bereziki jatorri-deituren, adierazpen geografikoen eta ekoizpen ekologikoen sistema komunitarioei buruzkoak.
- Merkatu berrien azterketak, irteera komertzial berriak bilatzeko beharrezkoak direnak.
- Sustapen eta informazio neurrien emaitzen ebaluazioa.

Eskarien aurreikuspena

Laguntza-eskariak agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2022ko urtarrilaren 15era bitartean aurkeztuko dira www.euskadi.eus egoitza elektronikoan:

- <https://www.euskadi.eus/servicios/0111011>
- <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0111011>

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK EPE BERRI BAT IREKIKO DU URRIAREN 21EAN ENPRESEI ETA AUTONOMOEI LAGUNTZEKO ZUZENEKO LAGUNTZAK ESKURATZEKO, HAINBAT BERRIKUNTZA GEHITU ONDOREN

Eusko Jaurlaritzak urriaren 21ean beste epe berri bat irekiko du COVID-19ak eragindako enpresen eta autonomoen kaudimenari laguntzeko zuzeneko laguntzetarako eskabideak aurkezteko. Epe berri hori 2021eko azaroaren 5eko 12: 00etan amaituko da.

Hala jasotzen da gaur Gobernu Kontseiluak onartutako aldaketa-aginduan, eta ekainaren 29an onartutakoarekin alderatuta zenbait berrikuntza jasotzen ditu.

Berrikuntza horiek Gobernu zentralak irailaren 14an onartutako arau juridikotik datoz (17/2021 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrena). Autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzen Covid lerroaren xedean eta aplikazio-eremuan aldaketak egiten dira, laguntzen eragin dinamizatzailea maximizatze aldera, eta laguntzek estalitako denbora-eremua luzatu eta arauaren zenbait alderdi argitzen dira.

Horrela, lehenik eta behin, laguntzen estaldura epea lau hilabetez luzatu da, maiatzaren 31tik irailaren 30era arte. Bigarrenik, Europar Batasunaren Aldi Baterako Esparruan aurreikusitakoarekin bat egin du, eta COVID19ren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babestera bideratutako Estatuko laguntza-neurriei dagokienez, laguntzak zertarako erabil daitezkeen kontuan hartu du. Zentzu honetan, argitu du, laguntza horiek edo beste batzuek jada estali ez dituzten kontabilitate-galerak, egindako kostu finkoen kontzeptuaren barne sartzen direla ere.

Finantza-egitura alde batera utzita, galerek enpresen ondare garbiaren murrizketa islatzen dute, eta, beraz, koherentea da horiek konpentsatzeko laguntzak bideratzea, bide batez sortutako obligazioak eta zorrak estali ondoren, enpresa-kaudimena indartu, ekonomiaren susperraldia, inbertsioa eta enpleguaren sorrera erraztuz.

Berritasun horiek sartzeko, egokiagozat jotzen da lehendik dagoen deialdi-aginduaren oinarriak aldatzea, eskabideak aurkezteko epea berriro irekiz, gaur Gobernu Kontseiluak onartutako dokumentuan jasotzen den bezala. Aurreko epea irailaren 30ean amaitu zen.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK UPV-EHUREKIN PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaur, astearteko bileran, onartu du hitzarmena sinatzea Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU), Ekonomia eta Ogasun Sailaren bitartez, Aktuariotza eta Finantza Zientzietako unibertsitate-masterreko ikasleek curriculumeko kanpoko praktika akademikoak egin ditzaten.

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du sinatzen den egunetik aurrera, eta praktikak Euskadiko Administrazio Orokorraren egoitzan egingo dira, Lakuan. Hitzarmen honen arabera, Eusko Jaurlaritzak praktikak egiteko bere instalazioen eta beharrezko baliabideen erabilera bermatuko du, eta parte har dezaketen ikasleen kopurua zehaztuko du.

Praktika horien helburua beren prestakuntza akademikoan eskuratutako ezagutzak aplikatzea eta osatzea da, jarduera profesionaletan aritzeko, enplegarritasuna errazteko eta ekintzailtza-gaitasuna sustatzeko eskuduntzak lortzen lagunduz.

Hezkuntza

175.000 EURO DOKTORETZA-AURREKO IKERTZAILEEN EGONALDIETARAKO DIRULAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du, Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko Programa aplikatzen den zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko dirulaguntzak deitzen dituen agindua. 175.000 euroko diru-kopurua duen deialdi hau gorago aipaturiko Doktoretza-aurreko Programaren onuradun diren ikertzaileei zuzendua da. Ikertzaile hauek lan-kontratu bidezko harremana dute ikerketa zentroekin (unibertsitate edo ikerketa erakundeak, I+G+b-n ahalmen eta jarduera ezaguna dutenak). Ikerketa zentro horiek Doktoretza-aurreko programarako aplikazio-zentrotzat hartzen dira. Hala ere, maiz, doktoretza-aurreko ikertzaileek aplikazio-zentroa ez den beste zentro batean egin ohi dituzte unean-uneko egonaldiak, euren ikerketa-lanak hala eskatuta.

Horrela bada, Hezkuntza Sailak dirulaguntza deialdi hau irekitzen du, lekualdatzeak edo aldi baterako egoitza-aldaketak egin behar izaten dituzten doktoretza-aurreko ikertzaile horiei osagarri ekonomikoak eskaintzeko helburuz. Egonaldiak unibertsitateetan, ikerketa edo garapen teknologikoko zentroetan eta I + G +b-ko jarduera duten enpresetan egin ahal izango dira, atzerrian zein Estatuan, betiere aplikazio-zentroarena ez den beste herri batean kokatuta badaude eta dirulaguntza ematea justifikatuko duen aldi baterako egoitza-aldaketa badakar.

2021ean, doktoretza-aurreko 58 ikertzaile izan dira laguntza hauen onuradun iazko deialdiaren bidez, eta horrela, aldi bateko egonaldiak egin ahal izan dituzte euren aplikazio zentroa ez den beste zentroren batean.

Egonaldien helburua izango da ikertzaileek beren ikerketa zientifiko eta teknikoan izan beharreko prestakuntza hobetzea, ikerketa-jarduerak burutuz, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikasiz, edo gauzatzen ari den tesi-proiektuaren testuinguruan, prestakuntza zientifikoaren mesedetan izango den eta tesia garatzeko prozesua sustatuko duen beste edozein ikerketa-jarduera garatuz.

Hezkuntza

548 PLAZA ATZERRIAN INGELES, FRANTSES ETA ALEMAN IKASTAROAK EGITEKO

- Hiru asteko iraupeneko ikastaroak dira, 2022ko udan burutuko direnak, eta Batxilergoko eta DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzenduak
- Hezkuntza Sailak 847.038 euro bideratuko ditu deialdi honetara

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022ko udan Alemanian, Frantzian, Irlandan eta Erresuma Batuan hizkuntza ikastaroak egiteko egonaldietarako deialdia egiten duen Agindua onartu du. 548 plaza deitzen dira, DBHko 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailetako ikasleei zuzenduta. Deialdi honek 847.038 euroko diru-kopurua du.

548 plaza horietako bat eskuratu nahi duten ikasleek bete beharreko baldintzak, honako hauek dira:

- Aukeratutako hizkuntzan edo hizkuntzetan (ingelesa, frantsesa edo alemana) gutxienik 7 puntuko nota eskuratu izana aurreko ikasturtean.
- Aurreko ikasturteko batz besteko nota eta hautatutako hizkuntzan jasotako notaren arteko batuketan 16 puntu edo gehiago lortu izana.
- Ikasleak eskatzen duen plazari dagokion hizkuntza ikasia izan behar du aurreko bi ikasturteetan.
- Ikasleak 2022an gehienez ere 19 urte betetzea.

Plazen banaketa egiterakoan, kontuan izaten dira bai eskaera egin duen ikaslearen hezkuntza-maila, eta baita haren familiaren egoera ekonomikoa ere. Ondorioz, honela banatzen dira 548 plaza horiek, lau herrialdeetan:

Herrialdea eta hizkuntza	1. tarte		2. tarte		Plazak, guztira
	DBH	Batx.	DBH	Batx.	
1. Ingelesa Irlandan	70	83	20	25	198
2. Ingelesa Erresuma Batuan	88	117	32	43	280
3. Frantsesa Frantzian	30		20		50
4. Alemana Alemanian	10		10		20
Plazak, guztira	398		150		548

Lehen tartean, aurreko ikasturtean beka jaso zuten ikasleak hartzen dira kontuan, eta bigarren taretan berriz, bekarik jaso ez zuten ikasleak.

Plaza bakoitzak, ondorengo gastuak hartzen ditu barnean: joan etorriko bidaia, Euskadiko hiru hiriburuetatik egonaldia burutuko den herrialdeko hiriraino, bidaia aseguru, matrikula eta ikasketa materiala, ostatua, jatorduak eta ikastaroa burutuko den ikastetxerako hiri-garraioa.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

ELANKIDETZAK BABESTEN JARRAITUKO DU GERRA-EKINTZEN ETA GOSEAREN ARTEKO LOTURA AZTERTZEKO METODOLOGIA

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio 150.000 euroko dirulaguntza zuzenari Gosearen Aurkako Ekintza erakundeari. eLankidetzak-Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren ekarpena erabiliko da inplementazio-mekanismo bat abiarazteko, gatazka-eremuetako indarkeria-ekintzen eta elikadura-segurtasun ezaren arteko lotura ulertzeko.

Dirulaguntza honek balioko du jarraipena emateko eLankidetzak aurretik lagundutako metodologiari, Gosearen Aurkako Ekintzak eta Hegoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak ekainean aurkeztutakoa.

Metodologia pentsatua dago datuen bilketa eta azterketa indartzeko, eta txostenak egiteko egungo mekanismoa osatzen du, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 2018ko maiatzaren 24an onartutako 2417 Ebazpenarekin bat etorritik. Ebazpen horrek gaitzesten du gosea gerra arma gisa erabiltzea, eta legez kanpotzat jotzen du behar duten zibilei laguntza humanitaria ukatzea. Laguntza horrekin, eLankidetzak nahi du bere ekarpena egin ezagutza sortzen eta mundu osoko sistema humanitaria elikatzen, eta, bereziki, gosea gerra arma gisa desagerraraztera laguntzen.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO MANIFIESTA SU CRITERIO DESFAVORABLE A LA PROPOSICIÓN DE LEY DE ADQUISICIÓN PREFERENTE DE VIVIENDA

- **Señala que la propuesta de EH Bildu no aporta nada nuevo respecto de la regulación legal**

El Consejo de Gobierno ha manifestado su criterio contrario a la toma en consideración de la proposición de ley de adquisición preferente de vivienda por parte de las administraciones públicas y limitación de la actividad de los fondos de inversión. La iniciativa formulada por el grupo parlamentario EH Bildu regula el derecho de tanteo y retracto por parte de las administraciones públicas como vía para aumentar el número de viviendas de alquiler social.

En su reunión semanal, el Consejo de Gobierno ha analizado hoy en Vitoria-Gasteiz la propuesta y ha expresado su criterio desfavorable aduciendo que los derechos de tanteo y retracto ya están explícitamente regulados en la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, y en la Ley 3/2015 de Vivienda, así como en el Código Civil. Considera, además, que en la proposición de ley se señala que habría que “refundir y clarificar” la Ley de Vivienda, pero la propuesta no aporta nada nuevo respecto de la regulación legal. De hecho, el Ejecutivo vasco tiene derecho preferente de compra y actúa en consecuencia. Asimismo, argumenta que la propuesta genera confusión y no plantea la derogación de los preceptos necesarios en la refundición.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

ARANTXA TAPIA: ANÁLISIS Y VALORACIÓN SOBRE COSTES ENERGÉTICOS

Son ya casi diez años reclamando una política energética ligada a la política industrial, y estos días se ha evidenciado en Euskadi lo que supone el impacto del precio de la energía en la industria, motor de la economía y razón de nuestro estado del bienestar.

En todo caso, la preocupación de este Gobierno por los costes energéticos no se atribuye exclusivamente al ámbito industrial, porque somos muy conscientes de la vulnerabilidad de una parte de la sociedad que es atendida desde las políticas sociales del conjunto de instituciones.

La industria es dependiente de las condiciones de acceso a la energía, y la recuperación y el empleo se ven amenazados por el alza de precios. Nuestras plantas de fabricación continuarán en funcionamiento dependiendo de cómo afrontemos este debate.

El aumento del coste de la energía nos pone frente a frente con nuestras contradicciones. Y queremos proponer una estrategia energética que defienda nuestra realidad industrial.

